
EHU/UPV

**LITERATUR
KRITIKA
FEMINISTA
ZERTAN DEN
EUSKAL
HERRIAN**

GRADU AMAIERAKO LANA

Ione Etxeberria Egia

Tutorea: Lourdes Otaegi

Euskal Ikasketetako gradua

2014-2015 ikasturtea

Badakit, enzunaz beste gabe, neskatx gazte baten izena dagoala
itxatsirik liburutxo onen aurkean, jardungo dutela sinuka ez gutxik,
diotela beren artean, inoren lumaz janzi nai duela bela-txikiak; au da,
besteren bearrak artu nahi ditudala neretzat; dagokiola neskatxa bati
bururik ausitzea liburuginen: asko duela gorua, naiz jostorratza zuzen
erabiltzea

(Mogel, B.A., 1991:27)

LITERATUR KRITIKA FEMINISTA ZERTAN DEN EUSKAL HERRIAN

1. Sarrera

1.1. Lanaren helburu orokorrak eta laburpena

1.2. Metodologia

1.3. Lanaren egituraren justifikazioa

2. Literatur kritika feministaren definiziorantz

2.1. Feminismoaren oinarriak eta bilakaera

2.2. Literatur kritika feminista

3. Literatur kritika feminista Euskal Herrian: ikerketa ildoak

3.1. Zenbat idatzi da emakume ikusezinez?

3.2. Literatur disziplinetatik generoaz mintzo

3.3. Gorputza erdigunean: genero-ikasketetatik literaturaz

3.4. Identitateak, ahots subalternoak, euskal *queer*?

4. Ondorio orokorrak

5. Bibliografia aipatua

1. SARRERA

1.1 Lanaren helburu orokorrak eta laburpena

Literatur kritika feminista Euskal Herrian zertan den jakiteko asmoz egindako lan bat da hau. Interes pertsonaletik abiatutako proiektua izan da, literatur kritika ikuspuntu feministatik aztertzea beharrezko jotzen dudan heinean, hori euskal literaturan zenbat eta zein modutan landu den jakiteko asmoz hasitakoa. Izan ere, jendarte patriarkal honetan, ikuspuntu binario batetik, emakumeak menpean edukitzeko eta gizonen nagusitasuna bermatzeko egitura eta instituzioek indar handia duela uste dut, eta horietatik askatzeko feminismoa beharrezko jotzen dut. Literatur testuek jendarteko egiturak, harremanak, rolak eta beste zerbait arlo islatu eta aldi berean horiek eraldatu ditzaketen irudikapenak sortzeko gaitasuna duten heinean, jendartean hain beharrezko jotzen dudana kritika feminista euskal literaturara nola aplikatzen den aztertu nahi izan dut.

Lan honetan euskal literatur kritika feministaren nondik norakoak azaldu nahi izan ditut. Horretarako, lehenik, literatur kritika feminista definitzeko ahalegin bat egin

dut, feminismoaren historiarekin eta kritika feministarekin lotuta. Behin oinarri hori izanda, Euskal Herrian literaturaren esparruan garatutako kritika feministaren panoramika orokor bat aurkeztu nahi izan dut.

Panoramika orokor horretan euskal literatur kritika feministan jorratutako hainbat ildoren azalpena ematen ahalegindu naiz, lau ataletan banatuta: *Ahantzura baten kronika*, *Literatur diziplinetatik generoaz mintzo*, *Gorputza erdigunean: genero-ikasketetatik literaturaz mintzo* eta *Identitateak, ahots subalternoak, euskal queer?*.

1.2 Metodologia

Lan hau egiteko erabilitako metodologia bilaketa bibliografikoa izan da, zehazki Literatur teoria eta kritikaren esparruan feminismoaren eta genero ikasketen inguruan egindako ekarpenei buruzkoa, ondoren Euskal Herrian euskal literaturaz egin diren lan kritikoen panorama zein den argitzeko. Horretarako, bai Euskal Herriko Unibertsitateko Arabako eta Gipuzkoako kanpusetako liburutegietako bai eta Donostiako Koldo Mitxelena Gipuzkoako Aldundiaren liburutegietako baliabideak aztertu ditut eta gisa berean Interneteko baliabideak ere jorratu ditut.

Bigarren atalerako, “Literatur kritika feministaren definiziorantz”, Euskal Herritik kanpo argitaratutako testuak erabili ditut, literatur kritika feministaren definizioa osatzeko nazioarteko hainbat autoreren lana beharrezkoa iruditu baitzait.

Hirugarren atalerako, “Literatur kritika feminista Euskal Herrian: ikerketa ildoak” berriz, erabilitako baliabide ia guztiak Euskal Herrian argitaratutako lanak izan dira, euskal literaturaren inguruko lanak baitira.

Definizio eta panoramika orokor bat egitea helburu izanik, ez ditut argitaratutako lan guztiak ez landu ez eta aipatu ere, hori egiteko dimentsio handiago bat izango lukeen lan bat egin beharko nukeelako. Exhaustibitatea iristeko asmorik gabe, ildo bakoitzean garrantzitsuak iruditu zaizkidan testuak soilik landu ditut, irizpidetzat harturik lanen berritasuna, ekarpen teorikoa edota izandako eragina.

1.3. Lanaren egituraren justifikazioa

Lan hau bi atal nagusitan banatu dut. Lehenean, ”Zenbat idatzi da emakume

ikusezinez?”, literatur kritika feminista definitzeko ahalegina egin dut, eta bigarreanean, euskal literatur kritika feministatzat hartu ditudan hainbat ildoren aurkezpena egitea izan dut helburu. Bi atal horiek bereiztea batez ere lehenaren bitartez bigarrenari oinarri bat jartzeko ahalegina izan da, izan ere, ni ustez, ezin nuen euskal literatur kritika feminista aztertu aurrez literatur kritika feminista zer den, nondik datorren eta zein bilakaera izan duen, edota joera nagusiak nondiko norakoak diren aztertu gabe.

Bigarren atala lau zatitan banatu dut: Ahanztura baten kronika, Literatur diziplinetatik generoaz mintzo, Gorputza erdigunean: genero-ikasketetatik literaturaz mintzo eta Identitateak, ahots subalternoak, euskal queer?. Atal hauen banaketa, esan genezake nik egindako proposamena dela; izan ere, ez dago inolako lan osaturik euskal literatur kritika feministaren inguruan eta, beraz, bilatzen eta aurkitzen joan naizen lanak bildu eta sailkatzen aritu naiz, nolabait zentzuzkoa izan litekeen banaketa bat egiteko asmoz. Atal bakoitzean agertzen diren autoreek ez dute talde homogeen bat osatzen, ez eskola bat, ezta gai beraren inguruan lanean dabiltzan ikerlari talde bat ere, baina nik ikuspuntu eta metodologia antzekoak jorratzen dituztela ikusita, ildo beraren baitan kokatu ditudalako daude elkarrekin.

Honela, lanaren ikerketa bibliografikoaren alderdiari metodologia eta teoria-joerei buruzko ikerketa lana erantsi nahi izan diot, arlo honetan euskal kritikaren esparruan sumatzen dudana hutsuneari ekarpen xumea egiteko asmoz.

Lehenean, batez ere, kronologikoki hastapenetan koka ditzakegun eta emakume idazleen lana ikusarazi nahi duten autoreen lana bildu dut. Nahiz beste zenbait arlo ere jorratu, lan horien erdigunea emakumeak ikusaraztean kokatu dut eta horregatik bildu ditut.

Bigarreanean, literatur diziplinetan dabiltzan, baina haien lanei ikuspuntu feminista txertatu dioten autoreak kokatu ditut.

Hirugarrenean, genero-ikasketetan adituak diren, eta feminismoaren inguruan lanean dabiltzan autoreei eman diet lekua eta

Laugarrenean, feminismoaren azken aldiko korranteekin bat datozen eta diziplina-arteko ikerketa egiten duten, baita korrante kritiko anitzen eragina duten autoreak bildu ditut, batez ere haien identitate nazional zein sexualen inguruko

hausnarketa apurtzaileak direla eta.

Guztiak hartzen ditut euskal literatur kritika feministatzat, denek jartzen dutelako generoa kritikaren erdigunean, eta denek dutelako, nire ustez, jendarte patriarkal -kapitalista, inperialista eta heteronormatibo zenbaitek (ikus adibidez Gabilondo, 2006)- honi, literatur testuak erabilia, kritika egiteko eta baita bertan eragiteko asmoa.

Lan hau egiteko egindako ibilbidearen ondorio da esleitu diodan egitura hau, baina lanean zehar behin eta berriro aipatuko dudan moduan, lan hau motz geratu zait egin nahi nuen ikerketarako, eta era berean nire lana motz geratu da hainbat autore eta korrontek merezi duten azalpen teoriko sakonagoa barnebiltzeko. Ondorioz, ikerketa luzeago, sakonago eta oinarri gehiago duen baten beharra azpimarratuz amaitu nahi nuke sarrera hau, benetan euskal literatur kritika feministaren panoramika orokor, osatu eta egiazko bat burutzeko premia nabarmenduz. Horrek erakutsiko digu, benetan, zein egitura duen, zein ildo desberdin dauden, zein autorek duten garrantzia, zeintzuk izan duten eragina, zertan den gaur egun literatur kritika feminista gure herrian. Bitartean, hau saiakera xume bat da, bide horretan pauso txiki bat emateko asmoz egina.

2. LITERATUR KRITIKA FEMINISTAREN DEFINIZIORANTZ

Atal honetan literatur kritika feministan deitzen dioguna zer den argitzen saiatuko gara. Hasi aurretik, esan behar dugu, literatur kritika feminista ez dela bat eta bakarra, ez duela metodologia propiorik, ezin da definitu joera bakar eta homogeen moduan, beraz atal honetan bere oinarriak, historia piska bat, hainbat teorialarik egindako ekarpenak, kontraesanak, bere argi-ilun eta ñabardurak azalduko ditut.

Literatur kritika feministaren bilakaera estuki lotuta dago feminismoaren bilakaerarekin, edo hobeto esanda, feminismoen bilakaerarekin, Borràs Castanyerrek (2000: 15) dioenez, ezin baitu teoria bakar batek mundua emakume guztientzat, garai eta leku guztientzat baliagarria izan, eta horrekin lotuta dago mugimendu feministaren izaera dinamikoa eta heterogeneoa.

Feminismoa eta literatur kritika feminista lotuta ageri bazaizkigu ere, biek generoa analisirako oinarritzko teoriatzat hartzen dutelako, literatur kritika feministak gai literarioei eskaintzen die arreta: hizkuntza diskurtsoa, testualitatea, autoreak...

(Borrás Castanyer 2000: 19).

Gure aztergaiaren oinarrian, beraz, feminismoa dugu, eta honen sustraiak eta bilakaera ulertzea ezinbesteko zaigu literatur kritika feminista zertan den azaltzeko.

2.1 Feminismoaren oinarriak eta bilakaera

Suárez Brionesek (2000: 35) dioskunez, nahiz feminismo ugari dauden, guztiak gogoeta antzeko batetik abiatzen dira bere analisisetarako: emakumeen zapalkuntza gertakari historiko, sozial eta kultural eztabaidea dela. Horrez gain, beste ezaugarri bat dute ikerketa feministek: dimentsio politikoa dute. Kate Milletek *Sexual Politics* (1970) erabakigarria idatzi zuenetik eztabaida ezina da gizon eta emakumeen arteko harremanak **politika sexualak** mugatzen dituela. Politika sexuala honela definitzen du Moik (1985: 26): “The process whereby the ruling sex seeks to maintain and extend its power over the subordinated sex”. Literaturaren esparruan, esan dezakegu, era berean, feminismotik behatuta, literatur kritika eta interpretazioa ere ekintza politikoak direla, genero sexualak hermeneutika baldintzatzen duelako hein handi batean, (Jehlen, 1990; Butler, 1990 apud. Borràs Castanyer, 2000: 18).

Horrez gain, ikerketa eta analisi feministek, teoriak gain, munduko egiturak eta irudikapen sinbolikoak iraultzeko konpromisoa dute, eta haien epistemologia eta politika erradikala da, analisi eta interpretazioez gain eraldaketa bilatzen dutelako, (Suárez Briones, 2000: 35).

Has gaitzen bada, feminismoaren sorreratik. XVIII. mende amaiera koka ditzakegu feminismoaren lehen zantzuak, mendebaldean behintzat, emakumeen eskubideen alde izan ziren mugimenduetan. Borroka honetako lan aitzindarietako bat da *A Vindication of the Rights of Woman*, Mary Wollstonecraftena (1792). Beranduango, 1869an, J. Stuart Millen *The Subjection of Women* eta Margaret Fulleren *Woman in the Nineteenth Century* (1845) aurki ditzakegu (Olaziregi, 2008). Jada XX. mendean, feminismoak bultzada handia izan zuen emakumeen bozka eskubidea aldarrikatzen zuten mugimenduei esker, eta testuinguru horretan aurkitzen dugu, adibidez, Virginia Woolfen *A Room of One's Own* (1929), emakumeek idazle izateko dituzten zailtasunak kontatzen dituena. Lan horretan, Woolfek hain emakume idazle gutxi izatearen zergatiak azaltzen ditu: aisialdirik, dirurik eta norberaren gelarik ez izatea, besteak

beste. Horrez gain, emakume idazleen ezaugarri biografikoen berri ematen du, eta aipatzen dituen lau egileetatik (Jane Austen, Brönte ahizpak eta George Eliot) bi ez ziren ezkondu eta bakar batek ere ez zuen seme-alabarik izan, beraz, garaiko emakumeei egokitzen zitzaien roletik nahiko urrun zeuden emakumeak ziren (Toi, 1995: 15-32).

Hamarkada bat beranduago, Simone de Beauvoir-en *Le Deuxième Sexe* (1949) izan zen, dena den, feminismoaren bilakaeran eragin handiena izan duen lana. Lan horretako baieztapen ezagunak bide berriak zabaldu zituen: “On ne naît pas femme, on le devient”. Lehenagokoa bada ere, 1968ko maiatzaren testuinguruan hartu zuen garrantzia eta garai hartakoak dira, halaber, generoaren inguruko lehen analisiak (Borràs Castanyer, 2000: 20).

60-70. hamarkadetan feminismoak, nolabait **susmoaren hermeneutika** delakoa landu zuen (Suárez Briones, 2000: 35), hau da, botere monologiko, ofizial eta unibertsalisteri susmoz behatu zien interpretazioaren joera teorikoa.

70. hamarkadan sortu zen gaur egun esparru feministetan hain erabilia den “**genero**” kontzeptua analisirako ezinbesteko lanabes moduan. Baina zer diogu generoaz hitz egiten dugunean?

Genero sistema binarioa sexu “biologikoaren” gainean ezartzen den egitura psikosoziala da, hau da, bi sexu badaude, bakoitzari ezaugarri fisiko, psikiko eta jokabide zehatz batzuk atxikitzen zaizkio. Baina banaketa hori, gainera hierarkizatua da: balio gehiago ematen zaie ezaugarri maskulinoei femeninoei baino.

Nahiz generoak ez duen oinarri biologikorik, banaketa sexualaren arabera bakoitzari dagokion generoa ezartzen zaio: arrei maskulinoa, emeei femeninoa. Gaur egun, sexua ere kulturaltzat hartzen da, *sexutzat* duguna ez baita anatomia bera, sexuaren irudikapena da, anatomia soilik kontuan hartuko bagenu, ez dago frogatzerik banaketa binario hori erreal denik, (Butler, 2007: 56-65).

Generoaren inguruan teorizatu zuten lehenak arestian aipaturiko Simone de Beauvoir zein Dorothy Dinnerstein, Nancy Chodorow, Kate Millet, Carol Gilligan eta Gayle Rubin izan ziren, besteak beste.

Hauek izan ziren **politika sexuala** patriarkatuaren sorrerako oinarri moduan azalera zutenak. Kate Milletek honela definitu zuen *politika sexuala* deritzona:

“Es el término para designar todo el sistema de relaciones estructuradas de acuerdo con el poder el cual uno de los géneros (las mujeres) queda subordinado al otro género” (Millet, 1975, apud. Suárez Briones, 2000: 37).

Ezagutzen diren kultura guztietan gehien errotutako ideologia da hau, eta haren iraupena bermatuta dago bera zilegiztatzeko duten indar guztiak – politika, legeak, finantzak, zientzia, teknologia, akademia, indar armatuak, polizia- botere maskulinoaren esku daudelako.

Orain aztergai dugu feminismoaren garai honi, lehen bolada feminista deitu izan zaio, eta mugimendu honetako teoriariek uste zuten emakume izeneko kategoria definitzerik badagoela, subjektu berri moduan, bakardade eta isiltasunetik aterata. Haien ustez, emakumeek, esperientzia hori partekatzen zuten -menperatuaren esperientzia- historiaz eta kulturaz gaindiko ikuspuntu bateratuak zituzten, (Suárez Briones 2000: 38).

Nahiz eta mugimendu hau oso garrantzitsua izan zen diskurtso humanistaren ustezko neutraltasuna eta objetibotasuna salatzeke, baieztapen esentzialistetan oinarritu zen hainbatetan, eta aurretik erabilitako zenbait kontzeptu, analisirako tresna eta teoria ez zituzten zalantzan jarri, aldagaitzak eta betierekoak bailiran.

80. hamarkadatik aurrera, aurreko belaunaldiak eraikitako emakumezko subjektu horren kritika nagusitu zen, eta hau salatzen lehenak feminista beltzak eta lesbianak izan ziren, haien kideek beraien historiaz eta kulturaz ezikusia egin zutelakoan.

Izan ere, ordurarte “emakume” ziotenean, mendebaldeko emakume zuri, burges eta heterosexualaz ari ziren. Kolektibo hauen ekarpenari esker, subjektu feministaren inguruko eztabaida ireki zen, eta mugimendu feministek autokritikarako eta analisi berrietarako tarte hartu zuten, (Álvarez, 2001: 264-283).

80. hamarkadako feministek haien aurrekoei egindako kritika nagusiak emakumeen artean ere kanon eta normak sortzearekin lotuta egin ziren, emakumeen arteko ezberdintasunak aintzat hartzen ez zituztelako, eta emakumeentzako “identitate

monolitiko” bat sortzen ari zirelako (Borràs Castanyer, 2000: 22). Kontraesan hauek azalertzeari, eta hauen ondotik etorritako eztabaida berriei zor diegu feminismoa mugimendu plural eta polifonikoa bilakatu izana.

Laburbilduz, 70. hamarkadako feministen ekarpena “macho” kultura ikusarazi eta salatzea izan bazen, 80. hamarkadakoena, hau da, feminista multikultural, lesbiana eta marxistena, kultura zuri, burges eta heterosexuala salatzea izan zen.

Gaur egungo ikerketa feministen arabera, giza-sexualitatea eraikuntza soziala da, lehenago esan dugun moduan, ez da gertakari natural bat, nahiz gorputzean duen oinarria. Gorputzaren funtzionalitate fisiologikoak ez du nahitaez baldintzatzen sexualitatearen esanahi eta konfigurazioa, era zuzen eta bakarrean, eta identitate generikoak eta sexualak denboraren arabera aldatzen diren espazio eta indar korrelazioen ondorio dira. (Suárez Briones 2000: 39).

Beraz, ikerketa feministetan, azken urteetako eztabaidak identitateen eraikuntzaren, feminismoaren subjektuaren, eta generoa azpiratutako beste taldeekin erlazionatzearen inguruan ari dira garatzen, postkolonialistotik, postestrukturalistotik eta beste zenbait ildotatik jasotako ekarpenekin.

Feminismoaren baitan ere, gatazkak ugariak dira, eta horren adibide dugu feminista askok estrategikoki erabilitako **emakume** kategoriaren inguruan sortutako eztabaidak:

“Este gesto globalizador ha provocado numerosas críticas por parte de mujeres que afirman que la categoría “mujer” es normativa y excluyente y se utiliza manteniendo intactas las dimensiones no marcadas de los privilegios de clase y raciales” (Butler, 2007: 67).

Horregatik, generoaren inguruko diskurtsoa lantzeaz gain, feminismoa subordinatutako eta alteritatera kondenatutako taldeak ahalduntzeko eta horiek bermatzen dituzten egitura eta instituzioak suntsitzeko tresna bilakatu da, diziplina-arteke ikerketaren ildoak erabilia.

2.2 Literatur kritika feminista

Behin feminismoaren inguruko zertzelada batzuk emanda, hitz egin dezagun literaturaz.

Literatur diziplinak esanguratsuak dira, jendartearen egituraketari dagokionez, izan ere, edozein adierazpen artistiko bezala, genero-ezberdintasunen irudikapenak produzitzen dituzte, eta horiek emakume eta gizonen arteko ezberdintasunen hautematea moldarazten dute. Gure identitatea, irudikapenen bidez moldatzen dugu, eta irudikapenetan nagusia hizkuntza dugu.

Michel Foucaultek honela dio arestian aipatu dugun susmoaren hermeneutikaren ildoan:

“Nuestro modo de interpretación, construido en el siglo XIX, va de los seres humanos, de los conocimientos o de las quimeras a las palabras que los hacen posibles, y lo que descubre es que nosotros estamos, y antes aún de la menor palabra, dominados y transidos por el lenguaje”. (1966: 292, apud. Borràs Castanyer, 2000: 16)

Hizkuntza, halaber, baztertzaila da, eta beti zehaztapenak eta ñabardurak erabili behar ditugu ulertarazteko.

Hizkuntzak beraz garrantzia du, bai jendartearen konfigurazioan, bai eta gure identitateen eraikuntzan, beraz, idazketak ere bai. Ildo horretatik Borràs Castanyerrek (2000: 17) honela dio:

“La mirada femenina tiene que transformarse en una mirada escrutadora que la piensa, que la pondera, la refleja, la siente y la asimila en el impreciso territorio de la mente.”

Gómez Cañolesen ustez (2001-2002) diskurtso feministaz hitz egiteak, *ezberdintasunetik* hitz egitea esan nahi du, emakume bezala posizionatzea. Emakumea diskurtsoaz jabetzen denean, emakumeak ispilura begiratu eta ez du berataz eraiki duten irudia -emakumearen irudi hegemonikoa- ikusten, ez da bertan islatua ikusten, eta hortik sortzen da **emakume(aren) idazkera**, diskurtso androzentrikoa irauliko duena.

Esan bezala, literatur kritika feministak ez du metodologia propioirik;

marxismoaz, psikoanalisiaz, hizkuntzalaritzaz, semiotikaz zein beste disziplinetatik jasotako teoria eta metodologiez baliatzen da. Horren ondorioz, kritikari feministek ildo ezberdinak jorratu dituzte, baina bat egiten dute, lehenago esan bezala, emakumeak bigarren plano batean, ikusezin, bilakatu dituen ideologia androzentrikoa kritikatzeko.

Judith Fetterleyk (1978, apud. Borràs Castanyer 2000: 19-20) **resisting reader** kontzeptua sortu zuen honakoa azaltzeko: emakumeoi gizonak bezala pentsatzen irakatsi digute, ikuspuntu maskulinoarekin identifikatzen, eta hori normaltzat ikusten, baina Fetterleyren ustez, emakumeok *resisting reader* bilakatu behar dugu, hau da, irakurle erresistenteak, erakutsi digutenari men egin gabe gure irakurketa kritikoak garatuko ditugunak.

Literatur teoria modernoan arabera, testuen irakurketa ezberdinek, interpretazio desberdinek testua aberasten dute, beste zentzu batzuk aurkitzen dizkiotelako, eta emakumeok hori egin behar dugu, testuei irakurketa berriak aurkitu, testuak ber-irakurri, modu erresistente batean.

Aipatu autoreak literatur kritika feministaren barruan lau gako edo zeregin nagusi bereizten ditu:

1. Literatur historia berrikusi, bere zantzu patriarkalak antzeman eta arau sozial, kultural eta ideologikoen arabera nola irudikatzen diren erakutsi.
2. Emakume idazleak ikusarazi.
3. Gizonezkoen lanak kontsumitzera ohitutako emakumeei irakurtzeko pautak eskaini.
4. Irakurketa feminista esnarazi, idazketa eta irakurketa kolektibo berri bat sortu.

Ekin diezaiozun orain, behin literatur kritika feministaren gako nagusiak azalduta, bere historiaren azalpen labur bat emateari.

Olaziregik (1999) dioskunez, literatur kritika feministaren aitzindaria lehenago aipaturiko Virginia Woolf dugu. Woolf giro intelektual aberatsean hezia izan zen, eta bere osasun arazoek libratu egin zuten, hein handi batean, emakumeei garai hartan zegokien roletik, zaintza, amatasuna eta abar. Horri esker egin ahal izan zuen, Olaziregiren ustez (1999: 6) bere lan oparoa. Bere ekarpen narratiboez gain, bere kritika

lanak txalogarriak izan ziren.

Nabarmentzekoa da, lan guztien artean, *A Room of One's Own* (1929). Bertan, emakumeek idazle izateko dituzten zailtasunez mintzo da, eta hausnarketa historiko zorrotza egiten du.

Woolfen arabera, XIX. mendeko emakumeek presio izugarriak jasan behar izaten zituzten, ez zuten bizipen asko izateko aukerarik, gehienak etxetik irten gabe bizi baitziren.

Woolfen ustez, emakumezkoek perpaus arruntagoak, ohikoagoak bilatu behar dituzte, gizonezkoen erabilitako perpausa ez baitzaio ondo egokitzen ikuspuntu femeninoari. Dena den, Woolfek ez du idazketa femeninoa aldarrikatu nahi, haren ustez sormen lanetan **androginoak** izan behar dugu, hau da, geure baitan ditugun gizon eta emakumeak batu behar ditugu. Woolfen lanak, dena den, ez dute oso harrera ona izan feministen aldetik, eta Moiren arabera (1988:91, apud. Olaziregi, 1999: 9) 80. hamarkadara arte Woolfen lanak susmagarritzat hartu dira, edo ezikusia egin zaie literatur kritika feministari egindako ekarpenei.

Kritika horien artean aurki dezakegu Elaine Showalterren *A Literatur of Their Own* (1977) lan ospetsua; bertan kritikari iparramerikarrak Woolf ikuspuntu androginoan babestu izana kritikatu zuen bere zorigaitzeko egoera ahazteko egin zuela iradokiz; baina beranduago, Showalterren ikuspuntuaren desegokitasuna argi geratuko da Luce Irigaray edo Helene Cixousen lanen azterketei esker. (Olaziregi, 1999: 9).

Haren ondoren etorri zen arestian aipatu dugun beste autore bat Simone de Beauvoir dugu. Bere *Deuxième Sexe* (1949) lana erabakigarria izan zen, bai feminismoaren bai eta literatur kritika feministaren historian. Lehenago esan bezala, 1968 maiatzaren testuinguruan hartu zuen garrantzia lan horrek, eta garai horretakoak dira, halaber, *Modern Language Association* eta *Comisión del Estatus de las Mujeres*, 1970. urtekoak. Hor koka dezakegu Borràs Castanyerren iritziz (2000: 20) mendebaldeko literatur kritika femistaren hasiera. Aipaturiko azken foro horretan bota zuen Adrienne Richek *Writing as a Re-vision* hitzaldia (1979), aztergai dugun honetan ezbairik gabe erabakigarria izan zena.

Lehen literatur kritika feminista hau garaiko joera teoriko nagusiekin nahastuta

ageri da (formalismoa, psikoanalisia, emakumearen askapen mugimendua...), lehenago esan bezala, anitzak baitira, eta ziren, disziplina honetan egindako analisi eta erabilitako metodologiak.

Batez ere kritika soziologikoarekin egiten du bat, literatur lana modu immanentean ezin daitekeela ulertu azpimarratzean, alderdi sozial eta kulturalak ere aintzat hartu behar direla baieztatuz.

Emakumeek, garai hartako kritikari feministen ustetan, kritika tradizionaletik aparteko ulertzeko modu bat, beste ikuspuntu bat eskaini dezakete.

Garai horretan, historia tradizionalak ahaztuta, emakumeak berreskuratzeko saiakera nagusituko da, antologia asko argitaratuko dira, baina ikerketa kritikoak ere. Kritikarien artean Elaine Showalter, Sandra Gilbertu, Susan Gubar, Alice Walker edota Ellen Moers azpimarra genitzake.

Azken honek, Ellen Moersek (1985: 12) adierazpen gogoangarri bat egin zuen, haren ustez, emakumeen historia ezagutu behar da literaturaren historia ulertzeko: “One must know the history of women to understand the history of literature”. Ezkutatuta, isilduta, egon direnen ahotsa, kasu honetan emakumeena, ezinbesteko ikusten dute, beraz, garai hontako kritikari feministek literatur historia -ordurarte gizakiaren, baina gizonen, historia- ulertzeko.

Borràs Castanyerren (2000: 21) arabera, literatur kritika feministaren historia laburra izan arren, bilakaera nabarmena izan du. Aipatu autoreak bi joera nagusi bereizten ditu:

1. Edukiaren kritika, hau da, estereotipo maskulinoak emakumea irudikatzeko garaian, nola hedatzen duen literaturak ideologia patriarkarra.
2. Emakumeek idatzitako literaturaren koherentzia tematiko eta historikoa bilatzen duena.

Azken horren barruan, bi galdera nagusi planteatzen dituzte, ea emakumeen biologiak haien idaztera mugatzen duen, eta ea **idazkera femeninoa** edo **emakume idazkera** baden ala ez .

Erantzuna, orokorrean ezezkoa da, baina emakumeek problematika komuna duen gizarte-talde bat osatzen dutenez, analisi bateratua egiteko aukerak irekitzen zaio ikerleari . Baina, hala ere, argi geratzen da, jada genero kontzeptua feminismoaren analisisetan zentrala bilakatu zenetik, jendartea dela mundu ikuskera konfiguratzen duena, eta inola ere ez biologia.

Gai honen inguruan, idazkera femeninorik baden ala ez, *Écriture féminine* kontzeptua dugu, Lasartek (2012: 22), kritikari frantziarren ekarpenak jasota, (Cixous: 1975, Kristeva, 1974 eta Irigaray: 1977, 1974) azaltzen diguna. Hauen arabera, hau da, **diferentziaren teorialarien** arabera, emakumea isilunea eta ezereza da, eta sortze lana egiteko hizkuntza ez ezik, gizonezkoek isildu dituzten emakumeen esperientziak eta gorputzak ere, ordena sinboliko berri batez eraiki behar dira.

Gema Lasarteren arabera, idazkera femeninoaren inguruan, ez dago erantzun bakar bat, eta erantzuna emateko berak, Monique Wittig-ek esandakoak aintzat hartzen ditu, hau da, erantzuna ematekotan, postmodernismoak abiapuntutzat duen egia absolutuen ukazioan kokatu beharko lukeela erantzuna, hau da, idazkera femeninoa nahiz generoen kuestionatzean (Wittig, 2010: 27 apud. Lasarte, 2012: 23).

Kritika hauen ondoren, eta literatur kritika feministako lehen testu deseraikitzaile moduan Toril Moiren *Sexual/Textual Politics* (1988) daukagu. Lan honetan, bere aurreko kritikarien kontra azaltzen da, eta deskribatutako emakumearen “identitate monolitikoa” kritikatzeko du. Moiren iturriak feminista frantsesak, Derridaren filosofia eta postestrukturalismoa dira.

Aipatu liburu horretan, Woolfen garrantzia nabarmendu ondoren, literatur kritikan nagusi diren bi korronteez hitz egiten du Moik, korronte anglo-amerikarraz eta korronte frantsesaz. Bai Moiren lanean (1988) baita Olaziregirenetan sailkapen horren bitartez aurkezten zaizkigu literatur kritika feministako korronte nagusiak. Sailkapen hori aski onartua eta baliagarria izan arren, lan honetan bi korronteetako autore nagusiak aipatzea nahiago izan dugu, eta sailkapen horretan sartzetik ez leudekeenekin batera aurkeztea.

80. hamarkadan, beraz, feminismoa generoaz aparteko beste kontu batzuekin ere kezkatzen hasten da, eta emakume zuri, heterosexual eta burgesetan soilik arreta

jartzeari utzi eta bestelako arraza eta gizarte talde gutxituak hartzen ditu aintzat.

Garai honetan Cheri Registerren kritika nabarmendu daiteke ekarpen interesgarri moduan (Borràs Castanyer, 2000: 23). Haren ustez, ordurarteko lanak ez ziren nahikoa izan kanona aldatu ahal izateko, ezta estetika femenino edota feminista baten oinarriak ezarri ahal izateko. Registerrek uste zuen literaturak “askapen kausa” modura balio behar zuela, eta horretarako bost “misio” egozten zizkion, (Borràs Castanyer, 2000: 23):

1. Emakumeentzako foroa izatea
2. Androginia kulturalarekin amaitzea
3. Jokabide-moldeak eskaintzea
4. Emakumeen arteko aliantza bultzatzea
5. Kontzientzia feminista bultzatzea

Egindako ekarpenak gorabehera, ez zuen jarraipen handirik izan.

90. hamarkadan, aurretik egindako hausnarketek eta hainbat korrontetatik jasotako kritikek teoria feministaren identitate kritikoa birformulatzea ekarri zuten. Bi bide bereiz daitezke garai honetan, generoa eta sexu-bereizketaren arloa alde batetik, eta mundu postkolonial eta poststrukturalistako errealitatea bestetik.

Tania Modleskik adierazi bezala (1991, apud. Borràs Castanyer, 2000: 23) ordurarteko generoari buruzko ikasketak bi falaziatan oinarritu ziren: ustezko heterosexualitatea eta emakume eta gizonen arteko ustezko berdintasuna.

90. hamarkadatik aurrerako beste erronka bat, eurozentrismoari aurre egitea izan zen, eta horrek jarraitzen du, gaur egun ere, salaketa nagusietako bat izaten. Kolonia ohietako lanen balorazioak jarraitzen du izaten, orain ere, erronka nagusietako bat, haien ekarpena aintzat hartu ahal izateko, haien egoera literarioa eraldatu dutelako, eta baita literatur teoriaren parametroak zabaldu dituztelako ere.

Dena den, hau guzia osagabea litzateke “black feminism”, kritika lesbianoa edota **queer teoriaren** ekarpenak aintzat hartuko ez bagenu. 90. hamarkadaren amaieran literatur kritikako **heterosexismoa** suharki salatu zuten erreferente nagusiak Audre Lorde, Bonnie Zimmerman, Teresa de Lauretis eta Adrienne Rich izan ziren, (Borràs Castanyer, 2000: 25).

Lehenaren ustez, “nagusiengatik” oinordekotzan jaso ditugun lanabesek, metodoek eta moldeek ez digute balio literatur kritika feminista erabilgarri bat sortzeko, bere hitzetan: “The master's tools will never dismantle the master's house” (Audre Lorde, 1984).

Beste ekarpen nagusi bat, periferiatik datorrena da. Gayatri Chakravorty Spivak, Chandra Mohanty eta Gloria Anzaldúa ditugu erreferente nagusi. Autore horiek testu inperialisten kritika egiten dute, haietan dauden diskriminazio sozial eta etnikoak salatu eta haien izate sinboliko eta subjektiboen inguruko gaiak lantzen dituzte.

Ikusten ari garen moduan, kritika feminista ez da gotorleku itxi bat, bilakaera izan duen, eta bilakaeran dagoen teoria da, ekarpenak jasotzeko irekita dagoena, eta etengabeko hausnarketa eta autokritikan dabilena.

3. LITERATUR KRITIKA FEMINISTA EUSKAL HERRIAN: IKERKETA ILDOAK

Atal honetan Euskal Herrian literatur kritika feministaren baitan koka ditzakegun ildo nagusien azalpena egingo dugu. Aintzat hartzekoa da, Euskal Herrian ez duela oso bide emankorra izan, nahiz azken urteetan era honetako lanak ugartu.

Olaziregik (1999: 14) azaltzen digun moduan, euskal emakumezko idazleen azterketa eta ikerketak urriak izan dira. Hala ere, kontuan hartu behar da Olaziregik pasa den mendearen azken hondarretan egindako baieztapena XXI. mendeko ikerketen ekarpenarekin alda litekeela, nahiz ez dudan uste esan dezakegunik bide oparo edo loriatsua egina denik.

3.1 Zenbat idatzi dute emakume ikusezinez?

Lehenago aipatu dugun moduan, literatur kritika feministan tradizionalki eta etengabe nagusi izan den lehen betebeharra emakume idazleak itzalpetik ateratzea izan da, kondenatuta izan diren ikusezintasunetik azaleratu eta haien balioztapena egitea.

Euskal Herriko literatur kritika feministan, lehen pausuak ere bide horretan joan ziren, eta azkeneko urteetan bestelako joerak nabarmendu badira ere, bide hori izan du euskal literatur kritika feministak emankorra.

Ildo honetan erreferente nagusietako bat Linda White dugu.

Linda Whitek 1996ean argitaratu zuen bere doktorego-tesia, euskal emakume idazleei buruzkoa: *Emakumeen Hitzak Euskaraz: Basque Women Writers of the Twentieth Century* izenekoa, euskal emakume idazleei buruz egindako lehena.

Breve Historia Feminista de la Literatura Española (en lengua catalana, vasca y gallega) (koord. Iris M. Zabala: 2000) libururako egindako artikuluan, bere tesiaren nondik norakoak erakusten dizkigu, ateratako ondorioak eta baita tesia egin bitartean izandako sentipenak ere.

Tesi horretan euskal literaturan emakumerik ez dagoela -edo oso gutxi daudela- dioen mitoa deuseztatu nahi izan zuen. Haren ustez (White, 2000: 265), euskal literaturaz hitz egiten dugunean, gehienetan gizonek idatzi eta kritikatzten duten mundu bat daukagu buruan, “bost edo hamar” emakume idazle besterik ez diren mundu bat. Hori da, haren ustez euskal literatur munduaren mito nagusia.

Whitek berak ere mito horretan sinesten zuela dio, eta horregatik erabaki zuela bere tesia emakume idazleei egindako elkarrizketetan oinarritzea. Baina horrez gain, euskal literaturaren historia labur bat ere idatzi nahi zuen.

Tesian aurrera egin ahala, ordea, ohartu zen emakume idazle pila bat zegoela XX. mendean. Espainiako Gerra Zibilaren aurretik aldizkarietan, berrogei, hirurogei, hirurogeita hamargarren hamarkadetan, eta are gehiago mende bukaeran, emakume idazle asko aurkitu zituen.

Guztira 124 emakume idazle aurkitu zituen, baina berak dioenez, (White, 2000: 269) askoz ere gehiago dira, nahiz berak tesian gehiago sartzerik izan ez zuen. Horietatik 20 itzultzaileak dira, berrogeita bost Espainiako Gerra Zibilaren aurretik idazten zutenak, eta gerraostekoak beste hirurogeita hemeretzi.

Whitek honela deskribatzen du sentitutakoa:

“Era como si fuera ciega y poco a poco se me restaurara la visión. Era como si todas esas mujeres fueran invisibles, y de pronto mi investigación me las hacía visibles”, (White, 2000: 266).

Izan ere, bere ikerketa lana euskal emakume idazleak aurkitzeko eta

ikusarazteko lehen saiakera izan zen, eta orain arte egindako sakonena.

Whitek **emakumeen ikusezintasunaren** arrazoiak ematen ditu, eta batez ere bi ikusten ditu: izenagatik ezin identifikatu ahal izatea eta haiei buruzko obra gutxi egotea.

Izenaren inguruan, Whitek diosku euskal literaturan ohikoa izan dela izenen ordezkari letrak erabiltzea, eta horrek zail bihurtzen duela emakumeak direla jakitea.

Ohitura horren eraginez, aldizkari eta antologietan ezin da jakin, aurretiazko informaziorik gabe **izen-abizenen lehen letra soilez sinatutako lanak** norenak diren, eta gainera, idazle gehienak gizonezkoak direla uste duen kultura batean, inizialak besterik agertzen ez diren zerrenda baten atzean emakumean daudela imajinatzea oso zaila da. Dena den, adibidez ingeles edo amerikar literaturetan nahikoa da autorea anonimoa izatea segur aski emakume bat dela esateko.

Ezizenak ere zailtasun gehigarriak dakartza, zenbait adituk haiei buruzko informazioa izan badezakete ere, literaturaren inguruko lanetan gordeta ez bada, zaila baita informazio horrek irautea.

Sinadurarekin lotuta aipatzen duen azken arazoa anonimotasuna da, beste kasuetan bezala, zaila izaten delako horren atzean nor dagoen asmatzea. Horren inguruan adibide bat ematen digu Whitek (2000: 267): 1929an *Gure Herria* aldizkarian *Kauserak edo kruchpetak* izeneko lan bat argitaratu zen, *Nehor* sinadura zuena. Idazlea emakumea zela susmatu zuten sukaldean gertatzen zelako, hamar pertsonaietatik zortzi emakumeak zirelako, eta emakumeei idazten *uzten* zaien generoetako bat zelako. Aipatutako beste arrazoi bat, emakume idazleei buruzko lan gutxi egotea da, eta gainera dauden horietan emakume gutxi aipatzen dira. Gaur egun, euskal literaturari buruzko lanek aurrera egin duten neurrian, ziurtasunez dakigu Nehor Jean Barbier idazle garaztarraren ezizena dela, nahiz Whitek, aurreiritziz edo, emakumezkoat duen.

Whiten ustez, emakumeek ere mitoa sinetsi eta beren lanekin sustatu egiten dute, nahiz haiek diren -emakumeak- emakumeei buruz idazten duten gehienak.

Whitek dioskunez, emakume idazleei buruzko lanetako bat Itxaro Bordaren *Hogoigarren mendeko emakumeak idazle: Antologia eta ohar zenbait* (1984) da. Bertan hamabost emakumeren -Borda barne- poemak edo narrazio zatiak aurkezten dizkigu, eta

haiei buruzko iruzkinak egiten ditu. Lehen 27 orrietan euskal literaturan gizon eta emakumeak zergatik bereizi behar ditugun arrazoitzen du, eta haren horrekiko hausnarketak eta iritziak erakusten dizkigu.

Aipatzen duen beste lan bat Julia Otxoaren *Emakume olerkariak: Poetas Vascas* (1990) da, baina hemen euskaraz idazten duten bost emakume besterik ez ditu aipatzen, gainontzekoek gazteleraz idazten dute.

Horiez gain, idazten duten emakume euskaldunei buruzko artikuluak idatzi dituztenen berri ere ematen digu Whitek (2000: 268): Aurelia Arkotxa, Nerea Azurmendi, Idoia Fernández, Mari Karmen Garmendia, Tere Irastorza, Gema Lasarte eta Laura Mintegi.

Whitek erakutsi bezala, gutxi dira, ordurarte, eta baita gaur egun ere, nahiz bere zerrenda piska bat luza dezakegun, euskaraz idazten duten emakumeei buruz egindako lanak.

Artikuluaren azkeneko atalean emakumezko idazleei leporatzen zaizkien hainbat kontu aipatzen ditu Whitek (2000: 272). Adibidez, zenbait emakumek gutxi idatzi dutela, edo umeentzako bakarrik. Baina Whiten arabera, nahiz gizon batzuk ere gutxi idatzi duten, haiek lan historiografikoetan agertzen dira, eta emakumeak berriz ez. Aipatzen dituen lan historiografiko horietan -Kortazar, Michelena, Mujika, Sarasola eta Villasanterenak- ere euskaraz idazten ez duten gizonezkoak agertzen dira. Whiten ustez, gizonezkoek gutxiago eskatzen zaie, errazago da haientzat lan historiografikoetan agertzea. Euskal literaturaren historiografian garatu den genero Diskriminazio horren adibide da, esaterako, gizonezkoentzat nahikoa dela lan bakarra idaztea idazle gisa agertzeko, emakumeentzat, aldiz, ez.

“Jakina denez, euskal literatur tradizio hegemonikoa, hau da, euskal literatur instituzioak balekoa kontsideratu duena, gizonezkoek idatzitakoa izan da, eta Teoria Sistemikoen jarraitzaileek esango luketen moduan, sistemaren guneetatik kanpo, hau da, periferietan kokatu da emakumezkoen ekarpen literarioa.” (Olaziregi, 2003: 203)

Whitek gaineratzen du berak soilik euskaraz eta lan literarioak (ez katexima, sermoi edo nabigazioari buruzko liburu teknikoak, gizonek egin moduan) idatzi dituzten

emakumeak hartu dituela aintzat, baina besteak ere kontuan hartuko balitu (ikasleentzako idazten dutenak, kazetariak, ikerlariak...) askoz gehiago izango liratekeela.

Beraz, Whitek esandakoaren arabera zera ondoriozta genezake, emakume idazle asko egon arren (berak 124 aurkitu ditu) askotan ez dela jakin emakumeak zirela (inizialekin, ezizenarekin edo anonimo moduan sinatzen zutelako) eta gainera haiei buruz gutxi idatzi dela, bai aipatu arrazoi horregatik baita “idazle” izateko askoz gehiago exijitzen zaielako ere.

Linda Whiten tesiak balio izan du ezkutatuta zeuden emakume guzti horiek argitara emateko, euskal emakume idazlerik ia ez dela dioen mitoa deusezteko, eta literatur kritikari eta historiografoen lana salatzeke, ez baitituzte emakumezko idazle gehienak aintzat hartu.

Emakume idazleei buruz egindako beste doktoretza tesi bat Maite Núñez-Beteluren *Género y construcción nacional en las escritoras vascas* dugu, 2001ean aurkeztua. Whiten tesiaren ondoren gaiaren inguruan aurkeztutako hurrengoa. Bertan emakume idazleen lanaren ildoak erlijoak eta nazionalismoak baldintzatu dituela ondorioztatu zuen, bai euskara bai erlijioaren alde egiteko asmoz, eta “fede katolikoaren eta abertzaletasunaren bermatzaile bihurtuta”, (Zabala, 2011)

Euskal emakume idazleez kezkatu den beste ikerlari bat Mari Jose Olaziregi dugu. haren *Intimismoaz Haraindi: emakumezkoek idatzitako euskal literatura* (1999) izeneko *Oihenart* aldizkariko monografikoan, atal bat eskaintzen dio emakumezko idazleak zenbatzen saiatzeari eta urritasunaren zergatiak azaltzeari.

Olaziregik dioskunez, emakumeek presentzia gutxi dute euskal idazleen katalogoetan (Euskal Editoreen Elkarteak 1998an argitaratutakoan hogeitaseitik bi besterik ez dira emakumeak) zein beste zenbait lanetan (Torrealdairen 1997ko *Euskal Kultura Gaur* lanean %10,6 besterik ez dira).

Horri harrigarria deritzo, batez ere haur eta gazte literaturarekin loturiko kontuetan. Euskal Herrian emakumeek irakaskuntzan izandako protagonismo nabarmena aintzat hartuta, zaila da ulertzea, bere ustez, emakumezkoek aipatu arloan duten presentzia urria.

Horrez gain, harrigarria da, halaber, irakurleen artean emakume gehiago daudela kontuan hartuta hain portzentaia baxuak topatzea.

Hori kontuan hartuta, eta urritasun horri azalpenik bilatu ezinda, hain emakume idazle gutxi ote diren zalantzan jartzen du.

Bere ustez (Olaziregi, 1999: 16): “Literatur kritika nahiz historietan, hizpide ez denak ez du inoiz bere nortasuna lortzen literatura kanonikoan, eta euskal emakume idazleei buruzko erreferentzia urriak ikusita, ez ote gaude ahanztura kritiko tamalgarri baten aurrean?”

Beraz, urritasuna baino, kritika eta historietan lekurik ez izateak azal lezake hain emakume idazle gutxi ezagutzea, ez askok uste bezala, gutxi egoteak.

Horrekin lotuta, Whiten tesia (1996) aipatzen digu, bere hipotesia indartze aldera, lehenago esan dugun moduan, berak frogatu zuelako urritasunaren atzean ikusezintasuna zegoela.

Olaziregik beste ikerketa batzuk aipatzen dizkigu, horien artean 1987an *Jakin* aldizkariak “Emakumea eta Literatura” izenez argitaratu zuen zenbakia. Zenbaki horri kontutan hartzekoa deritzo, bederatzi emakume idazleren lanak biltzen zituelako, eta baita “garaian puri-purian zeuden eztabaidak gurera ekarri zituelako” ere, (Olaziregi, 1999: 17).

Jakinen zenbaki honen gai nagusia, izenburuak dioen moduan, "Emakumea eta Literatura" da, eta *Jakin* aldizkariak 1987ko maiatzean antolatutako hitzaldi sortaren emaitza da. Lan mardula da, 179 orrialdetako, eta horietatik 127 dira gai nagusiari lotutako artikuluei dagozkienak. Emakumea eta literatura gaiaren baitan, hiru dira batez ere landutako ildoak. Tere Irastortzak eta Aurelia Arkotxak Etxepare, Oihenart, Orixe eta Txomin Agirre eta Gabriel Aresti aztertzen dituzte, Gema Lasartek emakumeek idatzitako literaturan gizonezkoa nola irudikatzen den aztertzen du eta mahai inguru bat du amaiera gisa.

Laura Mintegik ematen dio hasiera monografikoari, eta bere artikuluan emakume literatura zer den eta zertan datzan aztertzen du. Bere artikulua oso interesgarria da, emakume idazleen inguruko teorizazio baliagarria duelako bere baitan,

mendebaldeko jendarteetan oinarritua, eta testuinguruak, garaiko autoreak eta bere hausnarketa propioak uztartuta ekarpen argigarria iruditzen zaigulako. Hori dela eta, interesgarria deritzogu artikuluaen mamia lanera ekartzeari.

Mintegik dioen moduan (1987: 8) gai honi dagokionez bere helburua “gaia kokatu, alderdi nagusienak aipatu, ta mahai gainean leudekeen polemikak azaleratzea” da. Hasteko, interesgarria da izenaren inguruan egiten duen gogoeta, izenak berak, hau da, “emakume” izendapenaren baitan koka daitezkeen subjektu -zein objektuen- inguruko literatura aztertzeak *de facto* kokatzen bagaitu marjinazioaren eremuan, ez-ohikoarenean. Izenaz gaindi, emakumeek egindako literatura nolabait bereizteko eta espezifikoki aztertzeke ezaugarri nahikorik baden zalantzan jartzen du, berak dioen moduan klasifikazio guztiek arriskua dakartelako.

Dena den, aitortzen du emakumeek egoera sozioekonomiko eta kultural jakin bat bizi izan dutela eta modu bertsuan -garaiak garai- izan direla jendarteratuak, eta horrek, arlo pribatura zokoratuta egonik, “arlo publikorako mailadia mailaz maila igo” behar izan dutela” (1987: 9).

Jarraian, emakumeen eta literaturaren inguruko hainbat mito deuseztatzen ahalegintzen da, lehenik, instrospekzioa eta mediokritatea zein eruditismoa eta kalitatea berdintzen dituen eta bigarrenik, emakumeei asko eragiten dien emakumea eta intimismoa lotzen dituen.

Mintegik azaltzen du (1987: 10) nola egia den emakumeek egindako obra askotan intimismoa izan dela nagusi, baina horrek jendarteko rol-banaketa eta emakumeari bortxaz ezarritako estatus gutxietsiarekin du zerikusia, eta egoera horretatik abiatuta egin behar duen identitate bilaketarekin, besterik ezean talde minorizatuak literatura dutelako era honetako gatazkak azaleratzeko bitarteko “eskuragarri eta merkea”.

Horrez gain, emakumeek literaturara masiboki salto egindako garaia, XX. mendea, norbanakoa erdigunean kokatzen den garaia dugu, indibiduoaren, norbanakoaren aroa, eta idazleak bere garaia oinordekoak direla kontuan hartuta ez da harritzekoa emakumeek bide hori jorratu izana, lehenago aztertutako aldagaiak ahaztu gabe.

Ondoren, emakumeaz orokorrean hitz egitea absurdua dela aldarrikatzen du, izan ere, ez omen da izaera femeninorik existitzen, baizik eta egoera femeninoa, guztiz garaiko jendarte egituraketak baldintzatua, eta horrek eman dizkie emakumeei, lehenago esan moduan, ezaugarri komun batzuk. Simone de Beauvoirrek zioen moduan (Beauvoir, 1986; apud. Mintegi, 1987: 11): “Feminitatea gizonezkoek asmatutako, eta pentsamendu logikora ohiturik ez dauden emakumeek onartutako fikzioa da”.

Egiten duen beste hausnarketa interesgarri bat emakumeek idazketaren aurrean hartzen duten jarreraren ingurukoa da: identifikazio-arazoekin lotutakoa, hau da, bere burua -emakume izanagatik- onartzen ez duten emakumeen eta beste jokamolde batzuk hautatzen dituzten emakumeena.

Mintegik bere baitan duen zalantza baten berri ematen digu; ez ote ditugun emakumeok ahoz salatutako portaerak literaturan erreproduzitzen. Ildo honetan Ymelda Navajoren azalpena dakarkigu (Navajo, 1983; apud. Mintegi, 1987: 13):

Hiru jarrera-mota diferente dago:

a) diskurtso maskulinoa imitatu, bere lengoia, historiak eta sinboloak, eta, honen bidez, itxurazko arrakasta soziala lortu.

b) ustezko estilo pertsonala sortu, bakarra eta femeninoaren adierazgarri izango dena.

c) kontzeptu biak bateratu, eta Virginia Woolf-ek "artearen androginia" deitzen zuena lortu.

Mintegiren ustez, bata zein bestea hautatuta beti izango dugu arriskua eredu maskulinoak imitatu edo finkatzeko, beraz, hobe da emakumeek idatzitako testuak aztertzea, horretarako hitza, esaldia, gaia eta pertsonaiak aztergaitzat hartuta.

Atal honetan, bereziki idazkera femeninorik edo emakume idazkerarik ba ote den argitzeko saiakerari garrantzia kentzen dio nolabait, nahiz partekatutako baldintza batzuetatik abiatu, emakume guztiek ez baitute testuinguru berdina bizi izan, eta ez baitituzte (idazketaren inguruko) aukera berdinak egin.

Bukaeran, emakumeek desberdin idazten ote duten aztertzen du, lehenago

aipatutako aztergaiak landuta eta zenbait autoreren hausnarketetatik abiatuta.

Interesgarriak dira, halaber, amaieran ondorio modura aurkeztutakoak, nahiz esaten digun ezer definitiborik ezartzeko asmorik ez duela, bere zalantza eta aurrera begirako perspektiba interesgarri zaigu.

Woolf, Beauvoir eta Amorosengan irudikatutako kontraesanak erakusten dizkigu, eta kontraesan horiek ondotik datorren dialektika da interesgarri zaiona. Baina ondorio bakar bat aipatzekotan, izaera eta egoeraren kontua aipatuko lukeela dio, hau da, historian zehar kolektibo batek jasandako egoerak bere izaera baldintzatu du, eta era berean, **eme-kondizioa** hezkuntzaren fruitu da. Sexu-diferentzian sinesten ez badu ere, desberdintasunak egon badaudela dio, baina horiek jendartean hitzaren erabilera desberdinaren ondorio direla (1987: 18).

Mintegiren artikulua ondotik, bi ildo nagusi lantzen dituzte *Jakin* aldizkariaren ale bereziko beste egileek, alde batetik, Nerea Azurmendik "Emakume idazleak euskal literaturan" izeneko artikuluan, bere ustetan "emakumerik gabeko literatura" den euskal literaturaren azterketa egiten du, emakumeen parte-hartzea eta emaitzak erdigunean jarrita.

Jarraian datozen artikuluek, aldiz, pertsonaiak eta rol femenino eta maskulinoen irudikapenak dituzte aztergai: Tere Irastortzak eta Aurelia Arkotxak Etxepare, Oihenart, Orixe eta Txomin Agirre batetik eta Gabriel Aresti bestetik, dituzte aztergai, hurrenez hurren eta Gema Lasartek emakumeek idatzitako literaturan gizona nola agertzen den aztertzen du. Azkenik, atala isteko, mahai-inguru bat hautatu zuten, berriro ere Mintegiren ildora gehiago hurbildu eta emakume-literatura zer den argitzeko. Interesgarria litzateke artikulua guzti hauen mamia ere lan honetara ekartzea, baina tamalez, lan honetan ez dugu aukerarik hainbesteko hedapenerako.

Jakin aldizkariako monografiko honekin batera, ezinbestekotzat jotzen dut *Hegats* aldizkariak 2014. urtean argitaratutako monografikoa aipatzea. Izan ere, 1987 hartako hitzaldi sorta hori aintzat hartuta *Sareinak* literatur kritika feministaren inguruko taldeko emakumeek mahai-inguru bat antolatu zuten 27 urte lehenago Jakin aldizkariakoan parte hartutako emakume berberekin, eta horren emaitza izan zen *Hegats* aldizkariako monografikoa.

Artikuluen egileak berdinak dira kasu askotan (Laura Mintegi, Nerea Azurmendi Zabaleta, Gema Lasarte, Mariasun Landa eta Maite Esnal Gonzalez) eta ahots berriak ere agertzen zaizkigu: Amaia Alvarez, Onintza Irueta eta Josune Muñoz.

Jasone Osoro Euskal Idazleen Elkarteko lehendakariak hitzaurrean dioskunez, “hasi gara geurea ere baden espazioa geureganatzen. Hasi gara geure beldurrak uxatzen edo, gutxienez, beldur horiekin bizitzen eta idazten”. 27 urte beranduago, egoera beraz ez dute hain beltz ikusten, emaitzak hasi omen dira, baina poliki, nahiz Osororen ustez, iraultzak horrela egin behar diren (2014: 8).

Hitzaurre honek *Jakin* aldizkariaren oihartzuna egiten du: 1987an oztopo gisa ikusten zirenak eta gaur egun ere badirenak aipatzen baititu. Halere, bestelako tonu bat antzematen da, esperantzarena, aurrerabidearena, emaitzak egon badaudelako, emakume idazleak hor daudelako, eta badirelako, oztopoak oztopo eta ikusezintasunak ikusezintasun.

Lehenago ere esana dugu Laura Mintegiren artikulua interesgarria zena, eta oraingo honi ere garrantzia eman nahiko nioke. Garai hartan idatzitakoaren errebasoa egiten du lehenik, eta aitortzen du garai hartan zuen kezka nagusia, eta oraindik ere guztiz argitzea lortu ez duena emakumeek desberdin idazten ote duten dela, baita desberdin idatziko balute ere desberdintasun hori zerk baldintzatzen duen.

Gaur egungo egoerarekin konparatuta, berriz, aurrerapausoak ez ditu hain baikor ikusten Mintegik (2014: 11):

“Emakumeek ez dute soinetik kendu “emakume eta literatura” marka murriztailea, eta belaunaldi berriko idazleei entzundako kexak aditzean nozitzen dugu ezer gutxi aurreratu dela emakume idazleen estatusen: emakume hauen arrangura ezaguna egiten zaigu zaharragoi, oraingo emakume idazleen multzoa handiagoa, sendoagoa eta pluralagoa izan arren”

Hau da emakume idazle gehiago, hobeak, anitzagoak dauden arren, haien estatusa, hein handi batean ez da hobetu.

Jarraian Mintegik emakumeen egoeraren, feminismoaren eta literatur arloan emakume idazleen inguruan urte guzti horietan izandako aurrerapenez mintzo zaigu.

Ondorioetan, berriro ere errepikatzen du gaiaz zenbat eta gehiago hausnartu gero eta ziurtasun gutxiago duela, eta bere helburuak ere argi uzten ditu, ez duela erantzunik aurkitzeko esperantzarik, baizik eta galdera berriak plazaratzeko helburua duela. Honela dio Mintegik berak (2014: 26):

“Galderak plazaratzeari ekingo diogu aurrerantzean ere, hurrengo 25 urteetan eta gehiagotan, ea noizbait asmatzen dugun emakume izatea zer den, zein kategoriatan sartzen den emakume idazlea, gainontzeko idazleengandik aparteko atala behar duen, ala ez.”

Emakume idazleen ahotsa plazaratzeko eta haien lana balioztatzeke beste lan garrantzitsu bat Ana Urkizak 2006an argitaratutako Zortzi unibertso. Zortzi idazle izan zen. Urkizak berak sarrerakoetan dioen moduan (Urkiza, 2006: 9), Bost idazle Hasier Etxeberriarekin berbetan (Etxeberria, 2002) eta Lo mío es escribir (Caballe, 2003) irakurri ondoren piztu zitzaion honelako zerbait egiteko irrika.

Lehenak euskal literaturako bost idazle kanoniko(e)k Hasier Etxeberriarekin izandako elkarrizketak biltzen ditu, eta bigarrena, aldiz, Espainian nahiz Latinoamerikan azken mende erdian espainolez idatzi duten emakumeen antologia da, eta bertan gehien azpimarratzen dena nazioartean izandako arrakasta da.

Horiekin, ordea, Urkiza ez zen konforme geratu, lehenean emakumerik ez zelako, eta horrek euskal kanonean egoteko beste zen euskal emakume idazlerik ez zela ondorioztatzea ekar lezakeelako, eta bigarrenean, nolabait emakume idazleek idaztea justifikatu beharra edo antzematen zuelako, haien nazioarteko arrakasta azpimarratuta.

Urkizaren helburua, liburu honekin (2006: 14) emakume idazleek “kontuan hartua izateko eskubidea” dutela aldarrikatzea eta bigarrenik, hartzailea bere obra “ulertzera, ederrestera eta oniriztera” heltzen dela erakustea.

Urkizak nahi luke literatur sistema osatzen duen agente orok “merezimenduzko txaloa” erakustea, eta horretarako arrazoiak eskaini nahi dizkie.

Elkarrizketetan antolatuta dago liburua, zortzi idazleri, zortzi emakume idazleri egindako elkarrizketetan, eta haietan zortzi unibertso ere erakusten dira, idazle bakoitzak berea sortua baitu, Urkizak dioen moduan (2006: 11).

Elkarrizketa horietan Urkizak jakitera eman nahi du “egungo euskal literaturaren kanonaren barruan sartzekoak diren emakumezko idazleak badaudela”, eta baita kanon horren inguruan “egonezina sorrarazi” ere (2006: 10).

Tankera honetako lanetan ohikoa den moduan, eta ez nahiz errepikapen hutsalaz ari, baizik eta egiturazko arazo bat litekeen zerbaiten etengabeko agerpenaz baizik, emakume hauei ahotsa emateaz mintzo da Urkiza (2006:12): “Hitz egin nahi duenari mikrofonoa jartzea besterik ez dut egin; esateko duenaren hitza jaso”.

Asko baitute esateko kanonaren itzalpeko idazleek, asko baitute esateko Arantxa Urretabizkaia, Mariasun Landa, Aurelia Arkotxa, Laura Mintegi, Lourdes Oñederra, Itxaro Borda, Miren Agur Meabe eta Yolanda Arrietak, baita haien ahotsean islatuta senti daitezkeen beste guzti horiek ere. Baina lehenago gertatu moduan, ezin dugu hona haiek esandako guztia ekarri, nahiz ekarpen guztiz interesgarria izan.

Euskal sistemaren normalizazioaren garaiko idazleek dihardute gehienbat azterketok, baina gogoan izatekoak dira gisa berean Pizkunde garaiko emakume idazleak aztertu dituzten historialariak, hala nola Mercedes Ugaldek (1993) Emakume Abertzale Batzako idazleei buruz eginiko ikerketak edo Ana Urkizak berak “Las mujeres en la inteligencia” (Hermes, 44 zb., 1-15) lana.

Bestalde, idazle garaikideei buruzko lanek ere zeresana eman dute Erasmus/Orgasmus belaunaldiaz egin diren artikulua eta eztabaidez. Ikusgarritasunaren ildoan, gizartean oihartzuna eman die komunikabideen interesak: Nerea Azurmendi...

3.2 Literatur diziplinetatik generoaz mintzo

Atal honetan, literatur disziplinetan diharduten, literatur kritika, teoria edo irakaskuntzan aritzen diren, baina haien lanetan edo proiektu jakin baten atarian ikuspuntu feminista txertatu duten autoreen lanaz arituko gara. Ez dut honekin irudikatu nahi, literatura “orokorrean” aritzen diren autoreak direla, eta haize bolada batek jota edo kritika feministara hurbiltzea otu zaienik, baizik eta literatur disziplinetan adituak eta arituak direla azpimarratu nahi baizik, eta horrez gain, literatur disziplinetako lanabesak baliatuta ikuspuntu feministarekin uztartzen jakin dutela baizik.

Ildo honetan, aipagarria da Iris M. Zavalak koordinatutako Breve historia

feminista de la literatura española saileko VI. liburukia, Breve historia feminista de la literatura española (en lengua catalana, gallega y vasca) (Anthropos, 2000), lehenago ere aipatutakoa. Bertan, azken atalean euskal literaturari egindako kritika feminista oso interesgarria zaigu. Aurreko atalean azaldutako Linda Whiten artikulua ematen dio hasiera atal honi, eta Mari Jose Olaziregik koordinatuta, beste zortzi artikuluk osatzen dute. Hainbat ildotatik jorratzen da kritika feminista, autoreak plazaratzen, pertsonaien rolak aztertzen, kanonikoak ez diren generoen inguruko lanetatik emakume idazleen unibertso literarioa monografikoki lantzen. Linda White, Lourdes Otaegi Imaz, Aurelia Arkotxa Scarcia, Ana María Toledo Leceta, Eukene Martín Sampedro, Amaia Iturbide Mendinueta, Igone Etxebarria Zamalloa, Carmen Larrañaga Odriozola eta Mari Jose Olaziregi Alustiza dira artikuluen egileak.

Revista Internacional de los Estudios Vascos, RIEV-en, Joseba Gabilondok liburuaz egindako aipamenean, bere garrantzia azpimarratzen du:

“Gerora liburu hau eredutzat hartu beharko litzateke antzeko proiektuak gararazteko emakumezkoen literaturaz beste esparrutan ere estatu espainiarreko literaturen aniztasuna azaldu nahi bada.” (Gabilondo, 2002:639)

Gabilondok garrantzia ematen dio estatu espainiarrean dauden beste hizkuntzetan idatzitako literatura ikuspuntu feminista batetik aztertzeari, aniztasuna aintzat hartu ezean, eta literatura nazional hauek periferiatik atera ezean, ezin baita benetan kritika feministarik egin (Gabilondo, 2002: 643).

Horrez gain, eta gure lanari dagokionez, bereziki garrantzitsua da, nabarmen adierazten du Gabilondok diskurtso kritiko galiziar eta katalanaren, eta euskaldunaren arteko desberdintasun nabarmenena (Gabilondo, 2002: 641-642), lehen bi tradizio kritikoek ondo ezagutzen dute kritika feminista, eta “berarekiko posizionatuz eta berarekin elkarrizketatuz eraikitzen dute beren tradizio kritiko propioa”. Euskal literatur kritikan aldiz, “diskurtso kritiko feministarekiko erreferentzia ia ez da existitzen”, bere ustez, diskurtso soziologikoak, besteen aldean indar handiagoa du. Adibidez, Whiten artikulua tradizio baten existentzia baieztatzea, estatistika berriak ematea, ezkutuan dena datuen bidez frogatzea. Bereziki interesgarri zaigu jarraian dioena:

“Oro har, diskurtso patriarkal eta maskulinstaren kritika

feminista onuragarria eta aberasgarria bada ere, hain zuzen heldutasun maila bat markatzen baitu, euskal literatur kritikaren kasuan, zoritxarrez eta aitzitik, kritika honen behin-behinekotasuna eta zailtasuna adierazten du. Izan ere, kritiko gehienek beren doktoretza tesiak gizonezko idazle hauei buruz idatzi dituzte eta beraz berauen kritika feminista urrats bat aurrera da.”

Beraz, Gabilondoren ustez, tradizioz apenas duen euskal kritika feministan urrats garrantzitsua da literatur kritikan aritu diren, baina batez ere gizonezkoen buruzko lanak egin dituzten autoreek kritika feminista egitea.

Amaieran, Gabilondok aurrera begira, beste nazioetan eta gurean nabarmena den desberdintasun kritiko hau aztertzea interesgarria dela dio, haren arrazoi historiko eta intelektualak bilatzea, “euskal literatur eta kultur praktika bere osotasunean ulertzeko” (Gabilondo, 2002: 642).

Atal honetan aipatu gabe utzi ezin dugun literatur kritiko bat, gure iritziz, Iratxe Retolaza da. EHU-n Euskal Filologian lizentziatu ondoren literatur eskolak ematen, literatur ikerketan eta literatur kritikan aritu da, besteak beste Berria, Idatz & mintz, Grial, A trabe de ouro, Hegats edota Jakin-en. (EIE).

Ikuspuntu kritiko honetatik eginiko ikerlanen artean, bere lan garrantzitsuenetariko bat Malkoen mintzoa. Arantxa Urretabizkaia eta eleberrigintza (Utriusque Vasconiae, 2002) izan zen, narratologiaren tresnez baliatuz, esparru akademikoan kokatzen dugun liburua.

Kritika feministari dagokionez, oso interesgarria zaigu Sareinak proiektuaren sortzaileetako bat dela aipatzea, eta proiektu hau deskribatzeko zer hoberik haien manifestuko atal hau baino: “Badugu sarea, euskal literatura; badugu haria, kritika literarioa; badugu jostorratza, teoria feminista, eta, jakina, badugu gogoia, sarean sare aritzeko.”(Sareinen manifestua, 2007). Euskal kritika literario feminista harilkatzeko pausu garrantzitsua.

Atal honetan, beharbada aipatu genitzazke emakumeen obra literarioak aztertu dituzten autoreen lanak, eta beraz EHUK euskal literaturaren historia osatu asmoz argitaratutako liburukietan emakumeei buruzko lanak ekarriko genituzke, besteak beste,

baina uste dugu euskal literaturaren ikuspegi orokor bat ematetik hurbilago dela bertan emakumeek duten presentzia ahalegin kritiko feminista esplizitu batetik baino, eta ezin dugunez hain lan laburrera hainbeste eduki ekarri, hori beste baterako utziko dugu.

3.3 Gorputza erdigunean: genero-ikasketetik literaturaz

Aurreko atalean, literatur disziplinetan lanean diharduten eta literatur kritikaren lanabesak teoria feministarekin uztartu dituzten autoreez aritu gara, eta atal honetan, berriz, kritika feministaren lanabesak erabiliz, genero-ikasketen esparrutik literatura landu dutenez arituko gara, benetan interesgarria baita, batez ere azken urteotan euskal literatur kritika feminista garatu eta finkatzeko egindako lana.

Ildo honetan erreferente nagusietako bat Gema Lasarte Leonet dugu. Hainbat lan argitaratutakoa bada ere, guztietan garrantzitsuena, guri dagokigunez, behintzat, 2011n Euskal Herriko Unibertsitatean aurkeztutako doktoretza tesia dugu: *Protagonista femeninoen ezaugarriak eta bilakaera euskal narratiba garaikidean*.

Bertan, Lasartek 1979tik 2009ra bitartean emakumeek idatzitako 27 eleberritako pertsonaia protagonista femeninoak aztertu ditu, **Feminist Agenda** kontuan izanik, hau da, Lasartek dioen moduan (2011: 2) “corpusa aztertzekeo garaian, kritika feminista anglosaxoiak *feminist agenda* deritzen emakume idazleek ohiko duten ardatz tematiko eta kontamoldeak errepikatzekeo joerari erreparatu zaio”. Hau horrela izanik, bost kapitulutuan banatu zuen tesia, memoria eta modus autobiografikoa, genero indarkeria, amatasuna, emakume eta nazioa eta sexua eta generoaren berridazketa.

Bere asmoa, “emakume idazleek idatzitako narratiba garaikideari genero ikuspegitik behatua ematea” izan zen, eta bere lana lehenago emakume idazleen inguruan egindako doktoretza tesiak (lehenago aipatu ditugunak) osatzeko baliagarria izatea nahi luke.

Tesi honek, emakume idazleen lanak genero-ikuspegitik aztertzekeo metodologia eta tresna interesgarriak eskaintzen dizkigu, azken urteetako narratibako gako garrantzitsuak emateaz gain.

Atal honetan aipatu gabe utzi ezin dezakegun beste autore bat Amaia Alvarez-Uria dugu. Irakaskuntzan eta literatur kritikan aritzeagatik da batez ere ezaguna ikerlari

hau, eta berak ere oso doktoretza tesi interesgarria egin zuen, guri dagokigunez behintzat. 2011 Euskal Herriko Unibertsitatean defendatu zuen Alvarez-Uriak *Genero eta nazio identitateak Katalina Eleizegiren antzezlanetan* izeneko tesia. Gaur8-rako emandako elkarrizketan honela erantzuten dio kazetariari bere tesia Katalina Eleizegiri buruzkoa izateko arrazoiei buruz galdetzean:

“Emakume idazleen euskarazko lana ezagutu nahian hasi nintzen. Buruan neukan tesia emakume idazleen inguruan egitea, eta asmoa zen XX. mendeko azken 30 urteetako taldetxo baten lana aztertzea. Historia ezagutu nahi nuen pixka bat, eta, horretan hasi nintzen, Milia Lasturrekin-eta. Ikusi nuen XX. mendearen hasieran emakume idazle pila bat egon zirela aldizkarietan, ipuinak eta olerkiak idazten... eta, bat-batean, Katalina Eleizegi topatu nuen” (Gaur8, 2012-03-29)

Beraz, bere hasierako helburua emakume idazleen euskarazko lana ezagutzea zen, eta hala topatu zuen Katalina Eleizegi. Bere lehen ikerketa horien emaitza argitaratu zuen *Jakinen* (Euskal emakume idazleen lekua literaturaren historian. Dorrearen arrakalak agerian uzten, 2005) .Autore horri buruzko tesia izan arren, bere inguruan, bere aitzakiarekin esatea gehiegizkoa iruditzen baitzaigu, hainbat gai sakontasunez lantzeko hautua egin zuen, bai garai hartako nazio identitatearen inguruko diskurtsoa baita genero identitatearen ingurukoa ere, horretarako, berak azaltzen digun moduan (Alvarez-Uria, 2011: 2) hainbat helburu finkatuta:

1) Marko teoriko-metodologiko berritzailea erabili, ikasketa kulturaletatik eta teoria postestruturaltatik edanez, euskal literatura eta euskal antzerkiaren historian ikerketa gaurkotu eta globala egiteko, Mendebaldeko kulturetan erabiltzen diren ikerketa lerroak eta kokapen epistemologikoak gurera ekartzeko

2) Katalina Eleizegiren antzezlanak, argitaratuak eta argitaragabeak aztertu

3) Katalina Erauso pertsonaia historikoari buruzko antzezlanaren edizioa egin

4) Antzezlan horretan proposatzen ziren "euskal emakumeak" aztertu eta diskurtso hegemoniko abertzaleak ezartzen zuen ereduari erresistentzia egiten ziola erakutsi, beste pertsonaia femenino dramatiko batzuekin konparatuz

5) Katalina Eleizegik Euskal Herriko kezka sozialak eta gatazka identitarioak islatu nahi izan zituela adierazi

Interesgarria da tesi honetan egiten duen lan bikoitza, lehenik autore honen lana filologikoki landu eta edizioa eta zabalpena egitea dela, baina baita garaiko diskurtso, gatazka, eta abarren inguruko analisisa egitea ere.

Alvarez-Uriak gainera, beste ekarpen bat egiten dio euskal literatur kritika feministari: marko teoriko-metodologiko berri bat proposatzea, ikasketa kulturalen eta teoria postestruturalen ekarpenak jasota.

Bi ikerlari hauek, haien bakarkako lanaz gain, elkarlanean ere proiektu interesgarriak garatu dituzte. Horien artean daukagu 2013an Udako Euskal Unibertsitatean antolatutako *Gorputza eta generoa euskal kulturen eta literaturan* izeneko ikastaroa. Hainbat adituren hitzaldi eta bestelako dinamiken bitartez, genero ikuspuntutik euskal kultura eta literatura aztertzeko parada izan zuten bertara hurbildutakoek. Ikastaroaren, eta lehenago haren aitzindari izan zen *Gorputza eta generoa euskal kultura eta literaturan* (EHU, 2012) liburuaren arrakasta ikusita generoaren eta “gorputzaren inguruan marko teorikoa eraikitzea”, proposamen didaktikoak egitea eta esperientziak eta gorputzaldiak jorratzea helburua izango zuen liburua argitaratu zuten (Lasarte, Alvarez-Uria, 2013: 7).

3.4 Identitateak, ahots subalternoak, euskal *queer*?

Atal honetan euskal literatur kritikan azken urteetan indartze bidean den ildo bat aipatu nahiko nuke.

Ildo honetan, erreferente nagusi Joseba Gabilondo dugu, Michiganeko Unibertsitatean ikerlari eta irakasle diharduen diasporako euskalduna.

Feminismoaz aparte, literatur kritika honek beste zenbait korrante kritiko jorratzen baditu ere, aurreko atal batean esan dugunez, feminismoa geroz eta gehiago uztartu izan da 80. hamarkadatik aurrera beste borroka zein beste korrante kritiko batzuekin, eta askotan ezin uler daiteke bere horretan. Gabilondok eta beste autore batzuek beste iturri batzuetatik edaten badute ere, feminismoaren zentralitatea aldarrikatzen jarraitzen dute, eta beraz interesgarri zaigu haien lanari errepasso txiki bat

ematea.

Joseba Gabilondok 2006an argitaratutako *Nazioaren hondarrak* (Euskal Herriko Unibertsitatea) dugu bere proposamen horien bilduma. Bertan, artikulua sorta bat aurkezten digu, eta bere ekarpen ikusgarriena literatura *nazionala* eta *postnazionala* kontzeptuak bereiztea bada ere, guri dagokigunez, bere hausnarketak interesgarriak dira euskal kritika feministaren panoramika txiki bat aurkeztu nahi badugu. Bere iturriak, joera kritiko hauek dira: postestrukturalismoa, postmarxismoa, psikoanalisi, feminismoa, postkolonialismoa, ikasketa kulturalak eta gay teoria. Bere ustez (2006: 13), korrante horiek interesgarriak dira euskal literatura *birpentsatzeko* abiapuntu eta proposamen bezala.

Bere artikuluen artean interesgarri zaizkigu *Erbeste amatiarretik utopia pertsonalera: emakumezko idazleen politika kulturala* (1998), *Itxaro Borda: migrantzia melankolikoa eta ni lesbier nazional baten idazketa* (2000) eta *Eta Oñederrak sugeari esan zion: nazioaren krisia adieraziz* (2000). Artikulu horietan, euskal emakume idazleen lanetan oinarrituta nazioaren, generoaren, sexualitatearen, amatasunaren, migrazioaren, emakumeen ahotsaren, gorputzaren, klasearen, libidoaren eta beste zenbait gairen inguruko hausnarketak eskaintzen dizkigu. Interesgarria litzateke horiek xeheki aztertzea, euskal literatur kritikari eta espezifikoki literatur kritika feministari ekarritako berrikuntzak direla medio, baina lan zabalago baterako utziko dugu hori.

Euskal literaturaren inguruan ikuspuntu feminista beste korrante kritiko batzuekin uztartu duen beste proiektu bat, eta Gabilondoren proposamen zenbaitekin bat datorrena, *Desira desordenatuak: queer irakurketak* (euskal) literaturaz (Utriusque Vasconiae, 2010) da. Ibon Egañak koordinatutako proiektu honetan, *heterosexualitateaz besteko* sexualitateen inguruko irakurketak bildu nahi dira (Askoren artean, 2010: 9) eta horretarako queer terminoa hobetsi dute, nahiz guztiek ez duten “azken hamarkadetan **queer teoria** deitu izan denaren ikuspegi ideologikoa” bere egiten.

Liburu honetan autore askok idatzi dituzte artikulua, gehienak euskaldunak euskal literaturaz baina baita, nire ustez, nolabaiteko marko teoriko bati oinarria jartzeko, badira atzerriko zenbait autore, Monique Wittig edo Beatriz Preciado kasu. Bost ataletan banatzen da liburua: *Gay poesiaren antologia bat*, *Lesbianak eta gayak euskal literaturan*, *Nazioa*, *sexualitatea eta identitateak*, *Nitasunaren idazketak*.

Partikularretik unibertsalera eta Generoaren (des)eraikuntzak. Izenburuetan ikus daitekeenez, zenbait gai jorratzen ditu liburuak, baina batez ere generoaren, sexualitatearen, nazio-identitatearen, pertsonalaren eta politikoaren ikuspegi hegemonikoarekin haustea du helburu, ikusten denari kritika egitea eta ikusezin diren horiei ahotsa jartzea, feminismoan askotan ikusi dugun moduan. Aurretik aipaturiko hainbat autorek idazten dute bertan, eta ez da kasualitatea, izan ere, gai hauen inguruan dabiltzanek ez dute komunitate handi bat osatzen, ezta komunitate bat ere gaur egun, nahiz horrelako proiektuak hori lortze bidean pauso garrantzitsu bat izan.

Azken atal honetan, ezin aipatu gabe utzi beste zenbait autore, bai lehenago aipaturiko Amaia Alvarez-Uria, bere tesian ere ikuspegi hori txertatzen duelako, Itxaro Borda, ez hainbeste lan kritikoan baina bai literatur produkzioan honetaz hausnartzen diharduelako, eta baita hain ezaguna ez den baina ildo honetan lanean dabilen Ibai Atutxa ere. Ikasketa kulturalen ildotik, literatura eta identitateak ikertzen dihardu batez, ere, eta Gabilondo, Borda eta aurrez aipaturiko beste zenbait autoreren eragina du bere lanetan.

4. ONDORIO OROKORRAK

Lan honetan euskal literatur kritika feministaren panoramika bat aurkeztu nahi izan dut, bere bilakaera eta egile nagusien berri emanez. Horretarako, lehenik literatur kritika feminista definitzen saiatu naiz, feminismotik abiatuta eta batez ere Europan eta Estatu Batuetan lanean ibili diren autoreen ekarpenak jasota. Horri dagokionez, esan nahiko nuke, orokorrean literatur kritika feministaren inguruan aurki daitezkeen lan gehienek oso mendebaldeko ikuspegia jasotzen dutela, eta nahiz batzuk periferiakoei ahotsa ematen saiatu, gehien irakurtzen direnak Europako eta Estatu Batuetako autoreak direla.

Ondoren euskal literatur kritika feministaren panoramika bat osatzen ahalegindu naiz, lehenago aurkezturiko lau atal horietan banatuta. Euskal literaturari buruz egin diren lan kritikoen sailkapen bat egitea izan da lan honen erronka nagusia, hots, azken hogeita hamar urteetan garatu den produkzio kritikoak bereganatu dituen ikuspegi teoriko eta kritikoak antzeman, multzokatu eta sailkatze proposamen bat egitea. Sarreran azaldu moduan, atalen banaketa berria proposatzen dut lan honetan, izan ere ez baitugu, tamalez, euskal literatur kritika bere osotasunean jorratu duen, eta banaketa bat egin

duen lanik, are gutxiago ikerketa ildoak bereizi eta landu dituenik ere. Lan honek ere, bere txikitasunean, ez du hori egiteko asmorik izan, baina bai lanari egitura koherente bat emateko asmoz, eta baita ildo desberdinak era xumean aurkezteko banaketa proposamen bat egitea, inola ere ez zurruna, bakarra ezta egiazkoa, ziur bainaiz saiakera bera era sakonagoan egingo lukeen edonork banaketa desberdina proposatuko lukeela.

Horrez gain, atal bakoitzean agertzen diren autoreak gutxi badira ere aipagarri dira. Ezin dugu zerrenda luze bat egin literatur kritika feministan aritzen diren euskal ikerlariekin, eta are gutxiago soilik horretan, edo bereziki horretan aritzen direnekin. Aipatzekoa da horren inguruan, genero ikuspuntutik euskal literatura aztertu duten doktoretza tesien kopuru urria: lau besterik ez dira. Era berean, Euskal Herriko Unibertsitatean gaiak duen leku urria aipa liteke, ez baitugu ikasgai bat bera ere gai honen inguruan euskaraz, nahiz baden *Literatura y género* ikasgaia (euskal literaturak ez du lekurik bertan). Gisa berean badira euskal literatura orokorra lantzen duten eta gaitegian genero ikuspegia txertatuta zenbait puntu gehituta dituzten pare bat ikasgai, hala nola Literaturaren Teoria,..... Arlo akademikoan duen bazterreko lekua ikusita, ez da harriztekoa hain argitalpen gutxi egotea, nahiz, nire ustez egoera ez den hain beltza.

Euskal sistema literarioa hain txikia izanik, eta bai jendarte mailan, bai hizkuntzaren inguruan dauden gatazkak ikusita, pozgarria iruditzen zait autore askok generoaren gaiari esplizitu heldu izana, gizonetzko nagusitasunaren aurrean euskal literaturan bai emakume idazleen, bai emakumearen – zein gizonaren- iruditegi hegemonikotik kanpo dauden ahotsak plazaratzeko asmoa aintzat hartzekoa baita.

Era berean, ikusten dugu, Unibertsitate publikoan departamenturik izan gabe, liburutegiko baliabide urriekin, eta erreferente gutxi izanda, nola euskal ikerlariak gai diren munduan zehar garatzen ari diren korronteei heltzeko, eta euskal literaturari, lehen aldiz askotan, begi horiekin begiratzeko.

Horren fruitu dira hainbat eta hainbat artikulu bilaketa bibliografiko honen laburtasunaren mugetan sartu ahal izan ez ditudan azken hogeita hamar urteetako lan kritikoak, aldizkari, akta, bilduma edota omenaldietako liburuetan bildu direnak. Hainbat lirateke aipatu beharreko artikulu eta azterketak, vaina jadanik aipatuak ditudan literaturaren kritikaren esparruko ahaleginaren fruitu direnez, haien lan nagusiei erreferentzia eginez etsi dut.

Era berean, lehenago ere aipatu dudan sare edo komunitate baten beharra beharrezko ikusten dut literatur kritika feministak indarra hartuko badu, unibertsitateetik kanpo ere beharrezkoa iruditzen baitzait hitzaldiak, artikulak, irakurle taldeak, ikastaroak eta beste hamaika proiektu antolatuko dituen sare bat egotea, eta badirudi ikusten ari direla, azken urteetan batez ere, horren aldeko zantzuak.

Finean, nire ikuspegi mugatutik egin dezakedan hausnarketa da hau, lehenago esan dudan moduan, lan honek ez baitu sakontasun, luzera, ez oinarri teoriko nahikorik ikuspegi orokor, osatu eta baliagarri bat izateko, baina ibilitako bidea ikasbide izan da niretzat, munduko literatur kritika feministaz eta euskal kritikaren panoramaz hobeki jabetzen lagundu dit. Bide horretan pauso bat ematea nuen helburu, eta mugak muga, hemen da horren emaitza.

“Diskurtso hegemoniko androzentrikoarekin amaitu eta euskal literatura aberastu behar dugu, feminizatu behar dugu, andrazkoen esperientzia eta kontamolde berriei bide emanez, estereotipo zaharrak apurtuz eta berriak sortuz ,mundua ikusteko beste modu batzuk ezagutu eta zabaldu.” (Alvarez-Uria, 2005:70)

5. Bibliografia aipatua

Álvarez, S. 2001, “Diferencia y teoría feminista”, in Askoren artean, *Feminismos Debates teóricos contemporáneos*. Madril: Alianza Editorial.

Alvarez, A., 2005, “Euskal emakume idazleen lekua literaturaren historian. Dorrearen arrakalak agerian uzten”, *Jakin* 148.

_____, 2011, “Genero eta nazio identitateak Katalina Eleizegiren antzezlanetan”, UPV-EHU.

_____ & Lasarte, G., 2012, *GORPUTZA ETA GENEROA. Euskal kulturaren eta literaturan*, UPV-EHU.

_____ & Lasarte, G. (koord), 2013, *GORPUTZA ETA GENEROA. Teoria, didaktika eta esperientziak*, Bilbo: UEU.

Askoren artean, 2014, “Genero ñabardurak lerro artean” *Hegats*, 52.

Borràs Castanyer, L, 2000, “Introducción a la crítica literaria feminista” in Segarra, M., *Feminismo y crítica literaria*, Bartzelona: Icaria.

Butler, J. 2007 *El género en disputa: el feminismo y la subversión de la*

identidad. Barcelona: Paidós.

Egaña, I. (koord.) 2010, *Desira desordenatuak: Queer irakurketak (euskal literaturaz)*, Donostia: Utriusque Vasconiae.

Euskal Idazleen elkarte, "Iratxe Retolaza Gutierrez"

Sarean: <http://www.idazleak.eus/euskara/idazleak/iratxe-retolaza-gutierrez>
(azken bisita: 2015-09-06)

Gabilondo, J. 2006, *Nazioaren hondarrak*, UPV-EHU.

_____, 2002, "Breve historia feminista de la literatura española (en lengua catalana, gallega y vasca)" *Revista Internacional de los Estudios Vascos*. RIEV, 47, 2

Sarean: <https://www.eusko-ikaskuntza.org/es/publicaciones/colecciones/riev/articulo.php?o=14348> (azken bisita: 2015-09-06)

Gómez Cañoles, C., 2001-2002, "Discurso feminista y literatura: antecedentes bibliográficos" *Documentos Lingüísticos y Literarios*
Sarean: www.humanidades.uach.cl/documentos_linguisticos/document.php?id=138
(azken bisita: 2015-09-06)

Lasarte, G. 2012, *FEMINIST AGENDA. Euskal narratiba garaikidean*, UPV-EHU

_____, 2010, "Pertsonaia protagonista femeninoen ezaugarria eta bilakaera euskal narratiba garaikidean", UPV-EHU.

Mintegi, L. 1987, "Emakume-literatura: zer da eta zertan da" in *Jakin* 45.

Moers, E., 1985, *Literary women*, Oxford: Oxford University Press.

Moi, T., 1988, *Sexual/Textual politics*, London: Routledge

_____, 1995, *Teoría literaria feminista*, Madril: Cátedra.

Mujika, A. "Amaia Alvarez Uria, ikertzailea: «Katalina Eleizegik beti izan zuen bere antzezlanetan euskal emakume desberdinak erakusteko grina»" *Gaur*8, 2012-03-29

Sarean: <http://www.gaur8.info/edukiak/20120331/331671/Amaia-Alvarez-Uria-ikertzailea-Katalina-Eleizegik--beti-izan-zuen-bere-antzezlanetan-euskal-emakume-desberdinak-erakusteko-grina> (azken bisita: 2015-09-06)

Olaziregi, M. J., 1999, *Intimismoaz haraindi. Emakumezkoek idatzitako literatura*, Donostia: Eusko Ikaskuntza.

_____, 2003, "Bizenta Mogel (1782-1854), edo euskal tradizio literario androzentrikoa pitzatu zenekoa" *Iker* 14 (II)

Sarean: <http://www.euskaltzaindia.net/dok/ikerbilduma/54862.pdf> (azken bisita: 2015-09-06)

_____, 2008, “Kritika Feminista” *Literatur terminoen hiztegia*. Euskaltzaindia.

Sarean: http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_xslt&lang=eu&layout=lth_detail&view=frontpage&Itemid=474&search=kritika+feminista (azken bisita: 2015-09-06)

Sareinak, 2007 “Sareinen manifestua”

Sarean: <http://sareinak.net/acerca-de/> (azken bisita: 2015-09-06)

Suarez Briones, B., 2000, “Feminismos: qué son y para qué sirven” in Zavala, I. M., *Feminismos, cuerpos, escrituras*, Sauzal: La página ediciones.

Urkiza, A., 2006, *Zortzi unibertso, zortzi idazle*, Irun: Alberdania.

White, L., 2000, “Escritoras vascas del s.XX. Aproximación histórica”, in

Zavala, I.M. (Koord.) *Breve historia feminista de la literatura española (en lengua catalana, gallega y vasca*, Vol. VI., Madril: Anthropos.

Zabala, J. L., 2011 “«Ikusezina ikusgarri bihurtzen» saiatu den hirugarren tesia” 2011-04-21

Sarean: http://www.berria.eus/paperekoa/1657/021/32112/2011-04-21/ikusezina_ikusgarri_bihurtzen_saiatu_den_hirugarren_tesia.htm (azken bisita: 2015-09-06)

